1. Mikel, zer ekarri dozu eskuan? Ogi zati bat ekarri dot.—2. Eroaten dau okelarik Arantza'k? Ez, Arantza'k ez dau okelarik eroaten, gatza baño.—3. Zenbat logela eukiko doguz? Logela bi eukiko doguz.—4. Begoña'k eta Arantza'k ardao gozoa artu dabe? Bai, eurek ardao gozoa artu dabe.—5. Ardao gozoa ekarri dogu etxetik.—6. Zuk ogi biguna eroan dozu mendira.—7. Zaldi au ederra da.—8. Ikusi dozu itxasoa, Mikel? Bai, nik itxaso urdiña ikusi dot.—9. Guk egur batzuk artu doguz bidean eta etxera eroan doguz.—10. Zuek ontzi garbiak ipinten dozuez maian.—11. Zer ikusi dozu? Txori baltz bat.—12. An asto bat ikusten dogu.—13. Zuek gatza eroango dozue maira.—14. Txori polit bat ekarriko dabe andik.—15. Nok egin dau ori? Zuk egin dozu? Ez jauna, nik ez dot egin.—16. Mutil batzuk egin dabe.—17. Eurek egin dabe.—18. Gaur egin dabe.—19. Logela loi bat ikusi dot zure etxean.—20. Ontzi loi bat ekarri dozue.—21. Ikusi dozu astorik mendian? Bai, nik lau asto ikusi dodaz, eta zaldi bi be bai.—22. Gure etxean egur asko eukiten dogu.—23. Ipiñi dozu azpillik mai orretan? Bai jauna, lau azpil eta kollarak, eta ontziak be bai.—24. Zenbat kollara dagoz maian? Lau kollara dagoz.

Iztegia - Vocabulario

entzun	oir, escuchar	nagusi	amo, jefe	zergaitik	¿por qué?
erosi	comprar	morroi	criado	...agaitik	por el
abesti	canción	neskame	criada	...akaitik	por los
ditu	los ha o tiene (dialecto guipuzcoano)				

OBSERVACIONES GRAMATICALES

- *El sufijo «gaitik» indica causa, motivo. Se añade a los nombres o pronombres:*

Arantza'gaitik = por Arantza, a causa de Arantza

nigaitik = por mí

- *Con los nombres comunes, se añade «agaitik» si es singular y «akaitik» si es plural:*

txakurragaitik = por el perro

txakurrakaitik = por los perros

JARDUKIZUN - EJERCICIO

1. Nigaitik joan zara.—2. Zugaitik etorri naz.—3. Arantza, zergaitik jausi zara? Zugaitik jausi naz.—4. Iñaki, nigaitik etorri zara? Enaz zugaitik etorri, aitagaitik baño.—5. Nogaitik etorri zara? Nire emazteagaitik etorri naz; beragaitik joan naz.—6. Nire anaiagaitik etorri naz.—7. Ni, barriz, zugaitik jausi naz.—8. Gugaitik erosi dozue ori? Bai, zuekaitik erosi dogu.—9. Gaur arratsaldean abesti eder batzuk entzun dodaz gure kalean.—10. Biar goizean mai barriak ipiniko doguz etxean.—11. Mikel'ek txori batzuk artu ditu (dauz).—12. Mutil asko ikusiko dogu mendi aretan.—13. Erritik bost ollar ekarri dozuez.—14. An gauza asko ikusi doguz.—15. Nagusiak mai bi ipini ditu etxe aurrean, eta morroi batek ardao ta ogia ipini ditu maietan.—16. Zer entzun dozu kalean? Abesti polit batzuk entzun dodaz.—17. Zenbat morroi dago bere baserrian? Iru morroi eta neskame bi.—18. Neskamerik ba dozu zure etxean? Ez, nire etxean neskamerik ez dogu.—19. Etxeko nagusia nire aita da.

Iztegia - Vocabulario

soñeko	vestido	niretzat	para mí	zuentzat	para vost.
azur	hueso	zuretzat	para ti	eurentzat	para ellos
jan	comer	beretzat	para él	...arentzat	para el...
norentzat	¿para quién?	guretzat	para nost.	...entzat	para los...

OBSERVACIONES GRAMATICALES

- El sufijo «rentzat» «entzat» indica destino de la acción del verbo. Corresponde al castellano «para», pero no en el sentido de dirección o lugar, sino en el de indicar el destinatario de una acción.

Lurdes'entzat soñeko bat ekarri dot

He traído un vestido para Lourdes

- Para aplicar este sufijo a los pronombres personales basta añadir «tzat» a los posesivos «nire», «zure», etc.: niretzat, zuretzat, beretzat, etc.

JARDUKIZUN - EJERCICIO

1. Nik soñeko bat erosiko dot zuretzat.—2. Zuk ogi bat ekarri dozu niretzat.—3. Berak azurrak eroan dauz txakurrarentzat.—4. Guk ez dogu ardaorik erosten semeentzat.—5. Zuek gauza politak ekarten dozuez guretzat.—6. Eurek ez dabe ogirik eron zuentzat.—7. Mikel, norentzat ekarri dozu ogia? Nire anaiarentzat ekarri dot.—8. Josetxu, aititak norentzat ekarri dau txakurra? Niretzat ekarri dau, ez zuretzat.—9. Begoña'rentzat erosten dozu gaztaia? Ez, nik ez dot gaztairik erosten Begoña'rentzat, amamarentzat baño.—10. Egurra ekarten dot egunero nire aitarentzat.—11. Soñeko bat erosi dozu niretzat.—12. Mikel'ek azur bat ekarri dau txakurrarentzat.—13. Zuek mai bat egin dozue zuen izekoarentzat.—14. Nok erosi dauz ollo orrek? Gure neskameak.—15. Nire adizkideak okela asko jan dau erri aretan.—16. Ondartzan abesti barri bi entzun doguz.—17. Etxeko neskameak ez dau ogirik artu eskaratzetik.—18. Neskameak eta nagusiak eskaratzean jaten dabe.—19. Orregaitik ogi bat eta gaztaia ekarri doguz, baño ez dogu ardaorik ekarri.

Iztegia - Vocabulario

neban	lo había o tenía	nebazan	los había o tenía
zenduan	lo habías o tenías	zenduzan	los habías o tenías
eban	lo había o tenía	ebazan	los había o tenía
genduan	lo habíamos o teníamos	genduzan	los habíamos o teníamos
zenduen	lo habíais o teníais	zenduezan	los habíais o teníais
eben	lo habían o tenían	ebezan	los habían o tenían
oitura	costumbre	zor	deuda

OBSERVACIONES GRAMATICALES

- *Al igual que la forma de presente, el tiempo pasado del verbo «izan», en su acepción transitiva, puede emplearse él solo, en el sentido de «tener». En Guipúzcoa es muy corriente, incluso en ocasiones en que debería emplearse el «euki», y en cambio en Vizcaya se emplea este último excesivamente.*

Nik neke aundi bat neban = Tenía una gran pena

- *Quando el objeto o complemento del verbo es plural intercala una «z» para expresarlo implícitamente.*

nik adizkide batzuk nebazan = yo tenía unos amigos

zuk be ba zenduzan = tú también los tenías

JARDUKIZUN - EJERCICIO

1. Nik oitura ori neban.—2. Zuk asmo polita zenduan.—3. Begoña'k buruko min aundia eban.—4. Guk morroi on bat genduan.—5. Zuek neskame gazte bat zenduen.—6. Eurek zor asko eben.—7. Zuk, ba zenduan itxaropenik? Bai, nik ba neban itxaropen apur bat.—8. Zuek oitura ori ba zenduen? Ez jauna, guk ez genduan oitura ori.—9. Nok eban errua? Eurek eben errua.—10. Nik adizkide bi nebazan.—11. Zuk ez zenduzan oitura orrek.—12. Mikel'ek barri txar batzuk ebazan.—13. Guk ez genduzan jai arek.—14. Zuek lau seme alaba zenduezan.—15. Josetxu ta Mikel'ek neke aundiak ebezan mendian.—16. Zor aundia genduan, baña orain ez dogu zorrik.—17. Asmo ederrak ebazan negurako.—18. Ez eben atsegiñik erri aretan.

Iztegia - Vocabulario

jakin	saber	madari	pera	giltz	llave
esan	decir	okaran	ciruela	areitz	roble
saldu	vender	bazter	rincón	arte	encina
len	antes	atari	portal	pago	haya
lenengo	primero	bean	abajo	piñu	piño

OBSERVACIONES GRAMATICALES

- Con las formas del pasado del verbo «izan» que hemos estudiado en la lección anterior y el infinitivo del verbo que se quiere conjugar se tienen los tiempos siguientes:

ikusi neban = vi

ikusten neban = solía ver o veía

ikusiko neban = hubiera visto

JARDUKIZUN - EJERCICIO

1. Nik okaran asko jaten neban nire amamaren baserrian.—2. Zuk abesti eder bat entzun zenduan, ezta?—3. Mikel'ek areitz eder bat ikusiko eban mendi aretan.—4. Guk be ori esaten genduan.—5. Zuek madari batzuk erosi zenduezan erriko kalean.—6. Eurek okaran eder bat artuko eben zuen baratzean.—7. Nire lagun batek ikusi eban.—8. Ez genduan ondo entzuten.—9. Zer jaten zenduen Paris'en? Asko jaten genduan, asko eta oso ondo.—10. Madari bat artuko genduan.—11. Ez eben etxea salduko.—12. Atzo ikusi neban erri onetan.—13. Izekoaren etxean madari bat jan zenduan.—14. Ikatz ona ekarri eben atzo.—15. Ez neban giltza eroan.—16. Zer ikusi zenduan andik? Arte eder bat ikusi neban.—17. Laster jakingo genduan.—18. Madari bat erosiko eban.—19. Gure mendi ta basoetan pago ta areitz asko ikusten neban len; orain, ostera, piñuak ipiñi dabez bazter guztietan.—20. Lengo igandean, Zeanuri'ko lagun baten baserrian egon nintzan.—21. Ederra da baserria; bean atari aundia lenengo; ta gero eskaratza.—22. Nun ipiñi zenduzan atariko giltzak? Emen ez dagoz.—23. Atzo arratsaldean mendiko piñuak saldu genduzan.—24. Pago eta arte arek aundi ta ederrak ziran.

Iztegia - Vocabulario

zugatz	árbol (frutal)	kerexa	cereza	barruan	dentro de
lizar	fresno	azal	pellejo	inguruan	alrededor de
igali	fruta	ikaskai	lección	batez be	principalmente
malluki	fresa	latz	áspero	barriz	sin embargo
ur	avellana	me	delgado	bigarren	segundo
intxaur	nuez	beste	otro	batzuen	de unos

OBSERVACIONES GRAMATICALES

- Si queremos decir, en euskera, expresiones como: «se dice», «se coge», etc., es decir, la forma impersonal de los verbos transitivos, basta conjugarlos con el intransitivo de tercera persona: «da», «dira», «zan», «ziran», que ya conocemos. Así:

etxe bat ikusten da = se ve una casa
 ez dira jaten = no se comen
 ez ziran salduten = no se vendían

JARDUKIZUN - EJERCICIO

1. Emendik ez dira zugatz arek ikusten.—2. Jaten dira igali onek? Bai jauna, igali orrek jaten dira; oso gozoak dira.—3. Atzo goizean, kalean, ez zan igalirik salduten.—4. Nik, egunero, okararak jaten nebazan nire etxean.—5. Zuk, beste egunean, iru lizar ikusi zenduzan mendian.—6. Begoña'k soñeko bi erosiko dauz Bilbo'n biar arratsaldean.—7. Guk, goizero, mallukiak artuten genduzan ortuan.—8. Zuek abesti batzuk entzun zenduezan gure kalean.—9. Eurek intxaurrek eukiten ebezan euren etxean.—10. Arantza, kerexak ekarri zenduzan ortutik? Bai jauna, kerexak eta intxaurrek ekarri nebazan atzo arratsaldean.—11. Nork eroaten ebazan urrak osabearen etxera astero? Guk eroaten genduzan.—12. Iñaki'k ikaskai guztiak jakiten ebazan.—13. Zuek zenbat ikaskai jakin zenduezan? Guk ogei ta iru ikaskai jakin genduzan.—14. Mallukiak jaten genduzan.—15. Iturri ondoan lizar gazte batzuk ipiñi ebezan.—16. Igali batzuen azala latza izaten da, eta ezta jaten, baña mallukiak ez dabe azalik.—17. Urrak, barriz, azal bi eukiten dabez; bata, mea, barruan; bigarrena, oso gogorra, ganean.—18. Inguruan, beste igali-zugatz asko be ikusi nebazan: sagar, madari, okaran eta kerexak, batez be.

Iztegia - Vocabulario

ezer	algo, nada	ezebez	nada	zerbait	algo
iñor	alguno, nadie	iñorbez	nadie	norbait	alguien
iñoiz	alguna vez, nunca	iñoizbez	nunca	noizbait	alguna vez
iñun	algún sitio, ningún sitio	iñunbez	en ningún sitio	nunbait	en algún sitio
ikasi	aprender, estudiar	orrelako	como ésos	joan dan	pasado

OBSERVACIONES GRAMATICALES

- Derivados de los pronombres interrogativos «zer», «nor», «noiz» y «nun», que ya conocemos, existen estos otros que aparecen en el vocabulario, cuyo uso es como sigue:
- Los de la primera columna se usan solamente en frases interrogativas y negativas.
ba dago ezer emen? = ¿hay algo aquí?
 Con el verbo en forma negativa tienen sentido negativo al traducir al castellano:
ez, ez dago ezer = no, no hay nada
- Los de la segunda se usan con su sentido negativo pero sin acompañar al verbo
zer ekarri dozue? = ¿qué habéis traído?
ezebez = nada
- Los de la tercera columna deben usarse solamente en frases afirmativas.
etxean norbait dago = alguien está en casa

JARDUKIZUN - EJERCICIO

1. Nor bizi da etxe orretan? Or... Burgoa jauna.—2. Ta beste orretan? Orkoak etorri barriak dira.—3. Ta emen, iñor bizi da? Bai, norbait bizi da.—4. Ez, orain ez da iñor bizi.—5. Zer dago mai ganean? Gaztai bat.—6. Ez dago ezer.—7. Ezer ikasi dozu etxean? Ez, ezebez.—8. Bai, zerbait ikasi dot, baña gitxi.—9. Noiz egon ziñan mendi orretan? Joan dan udean.—10. Ibilli zara iñoiz itxasoan? Ez, iñoizbez.—11. Sarritan joaten zarie Begoña'ra? Noizbait joaten gara baña ez askotan.—12. Iñun saltzen (saldu-ten) dabez, emen orrelako olloak? Ez, emen ez dabez iñun saltzen.—13. Nok ikusi dau? Nik ez, baña norbaitek ikusi dau.—14. Iñoiz egon zara erri orretan? Ez, iñoizbez, baña noizbait joango naz.—15. Intxaurren azalak latzak ta gogorrak dira; sagarrarenak, ostera, ez dira latzak, oso bigunak baño.—16. Iñork ikusi dau nire txakurra? Iñokbez.—17. Zure txakurra iñunbe ez dago.—18. Nirea, ostera, nunbait dago.

Iztegia - Vocabulario

irakurri	leer	liburu	libro	batzutan	algunas veces
izotz	helada	pelota	pelota	bear bada	acaso, quizá
edur	nieve	lora	flor	errez	fácil
txingor	granizo	tontor	cima	beraz	por consiguiente
eguraldi	tiempo	urrengo	siguiente	...n	que (relativo)
urte	año	ederto	muy bien		

OBSERVACIONES GRAMATICALES

- *El pronombre relativo «que» (el cual, la cual...) se traduce en euskera por el sufijo «n» añadido al verbo auxiliar o al principal si éste se conjuga en forma simple o sintética. La frase se construye de la siguiente manera:*
ikusi dozun gizona = el hombre que has visto
datorren igandean = (en) el domingo que viene
joan dan egunean = (en) el día pasado (que ha ido)
- *Si el verbo termina en «n» permanece invariable y solamente la forma de la frase revela la existencia del pronombre.*
jausi zan gizona = el hombre que se cayó
- *Si termina en consonante, delante de la «n» se pone «a» o «e».*
jan doguzan sagarrak = las manzanas que hemos comido

JARDUKIZUN - EJERCICIO

1. Etorri dan mutilla.—2. Ikusten dozuezan mendi arek aundiak dira.—3. Gaur ikasi dogun ikaskaia oso erreza da.—4. Artu eban lorea oso ederra da.—5. Atzo irakurri genduan liburua oso polita da.—6. Nik erosi dodan pelotea bizi-bizia da.—7. Ekarri daun olloa txikia da.—8. Datorren barikua lenengo barikua da.—9. Jaten dozuzan sagar orrek gozoak dira? Bai jauna, jaten dodazan sagar onek guztiz gozoak dira.—10. Nor da mendira doan gizon a? Mendira doan gizon a, gure irakaslea da.—11. Or datorren gizon ori.—12. Joan dan igandean eguraldi txarra izan zan, eta orregaitik ez giñan ondartzara joan.—13. Datorren igandean, bear bada ,lagun bategaz urtengo dot eta itxas-bazterreko erri batzuk ikusiko doguz Bakio'tik Lekeitio'raño.—14. Eta urrengoan andik Zarautz'eraño.—15. Lengo astean mendi tontor guztiak zuri-zuri agertu ziran, ta emen aize otza ibilli zan.—16. Goiz batzutan izotz aundiak izan ziran.—17. Ta orain, edurra ta txingorra; orain arte, beraz, negu latza ta gogorra dogu.

Iztegia - Vocabulario

diñot	digo	diñozue	decís	ondiño	todavía
diñozu	dices	diñoē	dicen	egi	verdad
diño	dice	ebagi	cortar, corte	auri	lluvia
diñoigu	decimos	edan	beber	...la	que... (conj.)

OBSERVACIONES GRAMATICALES

- También entre los transitivos hay algunos verbos, muy pocos, que se usan en presente sintético. «Esan» (decir), es uno de ellos, y las formas de presente son las que figuran en el vocabulario.
- El sufijo «la» añadido al auxiliar o forma simple o sintética, sirve para establecer la relación que existe entre dos oraciones de la misma frase. Equivale a «que» pero no debe confundirse con el relativo. Por ejemplo:

etorri dirala diño = dice que han venido

En cambio:

etorri diran gizonak = los hombres que han venido

- Si el verbo termina en «n», esta consonante desaparece al unirse el sufijo «la»
joan zala (zan-la) esan dabe = han dicho que fue

JARDUKIZUN - EJERCICIO

1. Entzuten dozula diñot.—2. Esan dabela diñozu.—3. Jango dodala diño.—4. Ikusten dozuela diñoigu.—5. Jausi dirala diñozue.—6. Elduko dirala diñoē.—7. Egia zala entzun neban.—8. Len ona ziñala diñoigu.—9. Zer esan dozu? Gaur eguraldi ederra dagola diñot.—10. Biar euririk ez dauala egingo diñot.—11. Atzo Bilbo'ra joan nintzan.—12. Zer diñozu? Atzo Bilbo'ra joan nintzala.—13. Madari asko dagola entzun dot.—14. Ardao gozoa edaten dozula ikusten dot.—15. Etxera doala esan dau.—16. Biar urtengo dirala entzun dot.—17. Ondiño ez dala etorriko diño.—18. Laster ezkonduko zarala entzun neban.—19. Soñeko bat erosi zenuela diñoē.—20. Zer egin dozu or? Nun? Emen, begi ganean? Ezta ezer; ebagi txiki bat.

Iztegia - Vocabulario

meza	misa	edozer	cualquier cosa	bardin	igual
jantoki	comedor	edonor	cualquiera	ostean	detrás
arrain	pez, pescado	edonoiz	cuando quiera	...tera	a...
artxo	cordero	edonun	cualquier parte	...nean	cuando (al)

OBSERVACIONES GRAMATICALES

- El sufijo «nean» que se añade al verbo conjugado (no al infinitivo) significa «cuando». También se puede traducir «al...».

etorri nintzanean = cuando vine o al venir

- En cambio el sufijo «tera» se añade solamente al infinitivo y significa «a...»

mezea entzutera = a oír misa

JARDUKIZUN - EJERCICIO

- Ikastolara etorri nintzanean nire adizkideak ikusi nebazan.—
- Bilbo'ra joan ziñanean, zer ikusi zenduan? Adizkide asko ikusi dot Bilbo'n.—3. Txikiak giñanean, Bermeo'ra joaten giñan.—4. Eguraldi txarra danean aize aundia ibiltzen da.—5. Goizeko amai-keetan Karmel'go elizara joan giñan, Txomin ta biok, mezea entzutera.—6. Gu jantokira joango gara arrain eta okela apur bat jatera.—7. Mendirantz noa, idiak eta artxoak ikustera.—8. Nok diño ori? Ori... edonok.—9. Zer jango dozu? Edozer, bardin da.—10. Iñoiz ikusten dozuz mutil orrek? Bai, edonoiz ikusten dodaz.—11. Ikusi dozu etxe ori? Bai, orrelako etxeak edonun ikusten dira orain.—12. Ezer saldu dozu? Ez, ondiño ezebez.—13. Nor dabil or, ate-ostean? Nik ez dot iñor ikusten.—14. Bai, norbait ba dabil.—15. Durango'ra joatean meza edonun entzungo dot.

Iztegia - Vocabulario

dakit	sé	bakarrik	sólo, solamente
dakizu	sabes	denda	tienda
daki	sabe	errota	molino
dakigu	sabemos	izkuntza	idioma
dakizue	sabéis	euskeraz	en euskera
dakie	saben	erderaz	en castellano

OBSERVACIONES GRAMATICALES

- Dakit, dakizu, daki, etc., son las formas verbales del presente sintético del verbo «jakin»: saber; uno de los pocos transitivos usados en esta forma.
- Por tratarse de una forma sintética o simple, en las preguntas que se hagan con este tiempo se antepone la partícula «ba» exactamente igual que lo hicimos con las formas simples de «izan». Y esto vale para cualquier otra forma simple.

ba dakizu ikaskaia? = ¿sabes la lección?

bai jauna, nik ba dakit ikaskaia = sí señor, yo (ya) sé la lección

JARDUKIZUN - EJERCICIO

1. Nik euskeraz ondo dakit.—2. Zuk ba dakizu erderaz be.—3. Berak ez daki euskeraz, erderaz baño.—4. Guk euskeraz eta erderaz dakigu.—5. Zuek izkuntza bi ez dakizue; euskeraz bakarrik.—6. Eurek izkuntza asko dakie; lau edo bost dakiez.—7. Errotan egon zarala ba dakit.—8. Okelea erosi nebala dendan ba dakizu?—9. Arrain asko jaten genduala ez daki.—10. Laster etorriko zariela ba dakigu.—11. Zure dendan egoten zarala ba dakie.—12. Euskeraz asko ez dakit.—13. Iñaki zuen etxera joan dala ba dakigu.—14. Errotara bidea ba dakizu? Bai jauna, errotara bidea ba dakit.—15. Ni logelan egon nazala ba daki Begoña'k.—16. Nire aitaren logelea, zein da? Ori da.—17. Zuek jantokian egon ziñiela ba dakie.—18. Nok daki ori? Orain arte, iñok (iñor + k) ez daki ori.

Iztegia - Vocabulario

urdai	tocino	ezin	no poder	txarto	mal
urun	harina	beti	siempre	arritu	admirar
papera	papel	gosari	desayuno	iya	casi
arkatz	lápiz	ezetz	que no	zetarako?	¿para qué?
aizto	cuchillo	gexorik	enfermo	...teko	para
idatzi	escribir	sarri	frecuentemente	...lako	porque

OBSERVACIONES GRAMATICALES

- El sufijo «lako» que se añade al verbo conjugado sirve para unir dos oraciones, una de las cuales es causa o motivo de la otra.

zegaitik etorri zara? = ¿por qué has venido?

nire ama emen bizi dalako etorri naz = he venido porque mi madre vive aquí

- El sufijo «teko», en cambio, se añade al infinitivo y significa «para». Responde a la pregunta «zetarako?»: ¿para qué?

zetarako ekarri dozu libururu ori? = ¿para qué has traído ese libro?

biar goizean irakurteko = para leerlo mañana por la mañana

JARDUKIZUN - EJERCICIO

1. Nik ezin dot paperean idatzi.—2. Zegaitik ez? Arkatzik ekarri ez dodalako.—3. Ezin dot gaztaia ebagi.—4. Zegaitik ez? Aiztorik ekarri ez dodalako.—5. Ezetz diño, ez dala joango, ama gexorik dagolako.—6. Enaz errira joan eguraldi txarra egin daualako.—7. Gaurkoa txarto egin dozu ta guztiz arritu naz, iya beti ederto egiten dozulako.—8. Ez dot jakin zelan egin, egun orretan etorri ez nintzalako.—9. Enintzan etorri, izotz aundia izan zalako.—10. Eskaratzara urdaia eroan dau, gosaria egiteko.—11. Urun asko ekarri dot ogia egiteko.—12. Zetarako izaten da uruna? Iya beti ogia egiteko.—13. Lengo urteetan sarri joaten giñan erritxu orretara ta an ederto ibilli be ango adizkide batzuekin, baña orain eurek Bilbo'n bizi dira ta orregaitik ez gara joaten.

Iztegia - Vocabulario

daukat	tengo	daukie	tienen	urri	escaso
daukazu	tienes	larregi	demasiado	bildur	miedo
dauka	tiene	lako	como	...ago	más
daukagu	tenemos	legor	seco	...ena	el más
daukazue	tenéis	ugari	abundante	...egi	demasiado

OBSERVACIONES GRAMATICALES

- El presente sintético de «euki»: tener, se emplea preferentemente para expresar una posesión material, aunque hoy, sobre todo en Vizcaya, tiende a usarse con carácter más general.

mai bat daukat = tengo una mesa

- Añadiendo al adjetivo los sufijos: «ago», «ena» o «egi» se puede indicar diversos grados de la cualidad que el mismo expresa

zuri = blanco

zuriago = más blanco

zuriena = el más blanco

zuriegi = demasiado blanco

JARDUKIZUN - EJERCICIO

1. Buru bat daukat.—2. Amar atz daukadaz.—3. Artxo bat daukazu.—4. Arrain asko daukazue.—5. Liburu bat dauka.—6. Sei liburu daukaz.—7. Guk ardi bat daukagu.—8. Bei bi daukaguz.—9. Ogei ta bost ollo daukazuz.—10. Lizar bat daukie euren baserrian.—11. Ur asko daukie.—12. Guriago...—13. Legorrago...—14. Urriago...—15. Ugariago...—16. Nire etxea zuriagoa da.—17. Zure txakurra baltzagoa da.—18. Zuen ardiak ederrenak dira.—19. Iñaki da gazteena.—20. Niretzat au da politena.—21. Beste ori illunegia da.—22. Txikiegiak dira mai arek.—23. Ardao larregi edan eben.—24. Bost nebarreba dira; Maite da txikiena ta Iñaki zarrena.—25. Bigarrena, ostera, txikiagoa ta lodiagoa da.—26. Etxe au polita da, baña guretzat txikiegi.—27. Gaur be bero dago, baña ez larregi; atzokoa aundiagoa izan zan.—28. Zure ama ezta nirea lakoa; alaiagoa da.—29. Bekokian zer daukazue? Nun? Emen? Ezta ezer.—30. Iñaki'k ez dauka bildurrik.

Iztegia - Vocabulario

diru	dinero	sagardao	sidra	garesti	caro
atz	dedo	igaz	año pasado	geyago	más
aurreko	anterior	aurten	este año	gitxiago	menos

OBSERVACIONES GRAMATICALES

- El comparativo se forma en euskera de dos maneras:
 - a) Si se comparan cualidades se añade a la palabra que expresa la cualidad el sufijo «ago» y delante se pone «baño», de la forma siguiente:

zure etxea nirea baño politagoa da = tu casa es más bonita que la mía
- Si el comparativo es de cantidad, en lugar del sufijo «ago» se ponen las palabras «geyago» o «gitxiago». Así:

zuk baño diru geyago daukat = tengo más dinero que tú

nik baño diru gitxiago daukazu = tienes menos dinero que yo

JARDUKIZUN - EJERCICIO

1. Zu baño lodiago nago.—2. Ni baño aundiago da.—3. Zurea baño baltzagoa da.—4. Kale au gurea baño zabalagoa da.—5. Mutil ori lñaki baño luzeagoa da.—6. Madariak sagarrak baño garestiago ziran atzo.—7. Miren txikiagoa da baña zarragoa.—8. Ikatza baño baltzagoak ziran aren begiak.—9. Uda au igazkoa baño legorragoa izan da.—10. Guk baño diru geyago daukazu.—11. Gaur amazortzi gagoz; atzo gitxiago egon giñan.—12. Iya beti mutillak neskattillak baño gitxiago etorten dira.—13. Zuk baño sagar gitxiago daukagu.—14. Igaz be lenengo egunetan ogetamar baño geyago etorten ziran.—15. Gu eurek baño egun bi gitxiago egon giñan.—16. Aurreko bi urteetan sagardao gitxi egin eben, sagarra urri izan zalako, baña aurten ugari dator.—17. Ne-guan, gabak egunak baño luzeagoak izaten dira.—18. Zer jango dozu? Edozer, bardin da.—19. Iñoiz egon zara itxaso zabalean? Bai, edonoiz joaten gara.—20. Zuen aitak liburu ederrak daukaz.—21. Mendiko aizea ona da.—22. Nork dauka nire liburua? Anton'ek dauka.—23. Zer daukazu or, eskuan? Nire txapela daukat.—24. Guk ez daukagu diru larregi.—25. Esku bietan amar atz daukaguz.

Iztegia - Vocabulario

egundo	hasta ahora	orio	aceite
ain	tan	garagardao	cerveza
astiro	despacio	indartsu	fuerte
arin	aprisa	janari	comida
geyena	la mayor parte	edo	o

OBSERVACIONES GRAMATICALES

«Tan» se traduce por «ain». Pero el comparativo de igualdad «tan... como» se forma anteponiendo la palabra «baizen» al adjetivo que expresa la cualidad, y ordenando la frase así:

zu baizen gazte naz = soy tan joven como tú
gure aita zurea baizen berandu etorri da = nuestro padre ha venido tan tarde como el tuyo

- Tratándose de comparar cantidades se usa «beste» en lugar de «baizen». **zuk beste diru daukat** = tengo tanto dinero como tú
- «Aide» como sufijo se añade a veces al nombre común o propio de un lugar para recalcar que se está o se va a allí, pero no tiene traducción al castellano.

JARDUKIZUN - EJERCICIO

1. Gure etxea ezta zuena baizen aundia.—2. Emen ez dago an beste baso.—3. Zegaitik ibilli ziñien ain astiro?—4. Zetarako erosi dozu ainbeste ogi?—5. Zu baizen arin etorriko nintzan.—6. Andoni, Mikel baizen indartsua da.—7. Ni baizen berandu zoaze gaur.—8. Atzo ez ziñien gaur baizen pozik joango.—9. Guk beste diru ez daukazu? Ez, guk ez daukagu zuek beste diru.—10. Errialde batzuetan geyago jaten da afarian bazkarian baño.—11. Emen, janariagaz, gitxik artzen dabe esnea; geyenak, ardao edo ura edaten dabe.—12. Ez dot egundaño gaur beste garagardao edan; bero dago egon be.—13. Bero danean, pozik edaten dot sagardoa.—14. Zein edari da emen garestiago, ardaoa ala esnea?—15. An, askoz merkeago da esnea.—16. Oraingo orio au ez da lengoa baizen ona.

Iztegia - Vocabulario

lo-egin	dormir	arrano	águila	erpa	garra
gogait-egin	aburrirse	egazti	ave	arañegun	anteayer
amets-egin	soñar	txindor	petirrojo	apal	humilde
egosi	cocer	luma	pluma	geiegi	demasiado
erre	quemar	uso	paloma	laño	niebla
...lez	como	moko	pico	zeozer	algo

OBSERVACIONES GRAMATICALES

- *Es muy frecuente en euskera expresar una acción utilizando el verbo «egin» (hacer). Así:*
 nik lo egin dot = yo he dormido (lit. yo he hecho dormir)
 zuk amets egin dozu = tú has soñado (lit. tú has hecho soñar)
- *El participio pasivo del verbo se suele formar añadiendo el sufijo «ta» al verbo:*
 gogaitu = aburrirse gogaituta = aburrido

JARDUKIZUN - EJERCICIO

1. Nik gaur, gogait-egin dot basoan.—2. Zuk, arañegun, txarto lo egin zenduan.—3. Mikel'ek atzo gogait-egin eban ikastolan.—4. Esneaz gogaituta nago.—5. Guk emen gogait-egiten dogu.—6. Zuek ondo lo-egiten dozue logela orretan.—7. Eurek ez dabe euren etxean lo-egiten.—8. Gaur ez da otzik, baña atzo arratsaldean otz egin eban.—9. Otz aundia izan zan.—10. Txindorra txori txiki bat da.—11. Arranoen mokoak ta erpak oso sendoak izaten dira.—12. Egazti apalena usoa dala diñoe.—13. Bere logelan sartuta, bakarrik geratu zan.—14. An zeozer artuta, Durango'ra joan giñan.—15. Gizon ori edanda dago.—16. Esne au egosita dago? Bai, egosita dago.—17. Ogi au geiegi erreta dago.—18. Atzo nire lagun batzuk mendian lañotan galduta txarto ibilli ziran.—19. Ni lez, gaur goizean etorri da Jontxu.—20. Gu lez, zuek be ikasleak zarie.—21. Ni lez, nire anaia be berandu etorri da.—22. Ni enaz, zu lez, berandu etorri.—23. Nire lumea zurea lakoa da.—24. Liburu au ori lakoa da.

Iztegia - Vocabulario

uste-izan	creer, pensar	al-izan	poder	erantzun	responder
bear-izan	necesitar	baietz	que sí	ulertu	entender
gura-izan	querer	amaitu	terminar	barriri	de nuevo
nai-izan	querer	aiztu	olvidar	merke	barato

OBSERVACIONES GRAMATICALES

- De la misma forma que con la palabra «bizi» (vida) y el verbo intransitivo «izan», expresábamos la idea de «vivir», con las palabras «uste» (idea), «bear» (necesidad), «gura» (deseo), «nai» (voluntad) y «al» (poder) y el transitivo de «izan» se forman los verbos o mejor dicho, modos verbales, que aparecen en el vocabulario. Naturalmente sólo se conjuga el verbo propiamente dicho «izan». Solamente en el futuro se acostumbra a añadir el sufijo «ko» al nombre que acompaña.

nik uste dot = yo creo (o yo tengo idea)

zuk al izan dozu = tú has podido (o tú has tenido poder)

berak gurako dau = él querrá

JARDUKIZUN - EJERCICIO

- Ogia gura dot.—2. Ardaorik nai dozue? Ez jauna, ez dogu ezer gura.—3. Zer uste dozu? Nik baietz uste dot.—4. Zer uste zenuen? Guk ezetz uste genduan.—5. Zer bear dozu? Ezebez.—6. Arin erantzun bear dozue.—7. Zer jan gura dozu? Ez dot ezer artu gura.—8. Eun saldu bear ebazan.—9. Euria dakarrela uste dot.—10. Etorriko zirala uste neban.—11. Nire etxera ekarri al dot.—12. Madariak ezin doguz jan.—13. Barriri egin bearko dabe.—14. Joan gurako eben.—15. Amaitu bearko dogu.—16. Gaur igandea zala uste neban.—17. Beste au politagoa dala uste dot.—18. Ez gatozela uste izango dabe.—19. Nik egin al dot.—20. Ez dozu geyago gura? Ez dot ainbeste gura.—21. Nok gura dau ondiño? Nik ez dot gura ezer.—22. Ulertu dozu? Bai, ondo ulertu dot orain eta ez dot aiztu bear.—23. Egur geiago bear dozue? Ba daukat emen ondiño.

Iztegia - Vocabulario

agindu	mandar	alkarregaz	juntos	abi	nido
gelditu	detenerse	zikin	sucio	ipuin	cuento
jesarri	sentarse	kendu	quitar	...teko	para

OBSERVACIONES GRAMATICALES

- El imperativo en segunda persona (vete, ven, toma), etc., es muy frecuente sustituirle pura y simplemente por el infinitivo:

etorri ona = ven aquí

artu ori = toma eso

- El subjuntivo, que se usa cada vez menos en muchos idiomas, puede también sustituirse, en la mayoría de los casos, por un giro característico, en la forma siguiente:

zure amak esan dau mendira joateko = ha dicho tu madre que vayas al monte

Literalmente: tu madre ha dicho al monte para ir.

Es decir que basta añadir al verbo el sufijo «teko» (para) y dar a la frase el giro que hemos dicho.

JARDUKIZUN - EJERCICIO

1. Josetxu, etorri ona ta ekarri zure txakurra zugaz.—2. Miren-txu, joan zure amaren etxera, ez gelditu emen.—3. Kendu ortik, oso zikiña dago.—4. Begoña'k zure etxean sartzeko diño.—5. Emen egoteko esan dau amak.—6. Ipuin polit bat erosteko esan neban.—6. Guztiak jesarteko agindu eban irakasleak.—8. Gugaz etorri gura dozu? Bai, pozik joango gara zuekaz.—9. Abi bat ikusi gura dozu? Bai, gura dot.—10. Okelea jan dozu? Atzo ez eban jan gura izan, gaur ostera pozik jan dau.—11. Zer bear dozu orain? Ezebez.—12. Afari aundia egiteko oitura dozu? Ez, ba, iya beti nire afaria ariña izaten da.—13. Arana jaun-andreak gure lagunak dira; gure etxe ondoan bizi dira.—14. Euren seme-alabak eta gu alkarregaz joaten gara ikastolara.—15. Nire aitak lagun asko ditu.—16. Nire amak, ostera, ez dauka lagunik.—17. Nire amaren lagunik onenak gu gara, bere seme-alabak.—18. Gugaz dagonean, oso pozik egoten da.

Iztegia - Vocabulario

billa	en busca de	edari	bebida	orduan	entonces
bazkari	comida	egoan	estaba	ondoren	después
bikain	excelente	erabagi	decidir	...barik	sin
egarri	sed	batez be	sobre todo	...tean	al

OBSERVACIONES GRAMATICALES

- El sufijo «tean» añadido al infinitivo equivale al castellano «al» delante del mismo (al salir, al entrar).

JARDUKIZUN - EJERCICIO

1. Zer jan gura dozue? Nik ez dot ezer artuko, etxean asko jan dodalako.—2. Nik edontzi bat esne artuko dot.—3. Beroa ala otza gura dozu? Otza artuko dot; bero onegaz egarri naz.—4. Nik ez dot iñoiz esnerik artzen.—5. Bai gozoa dala esne au! Bilbo'koa baño gozoagoa!—6. Emen esnea ugari da, ta orregaitik merke dago.—7. Nik goizetan bakarrik artzen dot esnea; arratsaldean iñoizbez.—8. Iñoiz sagardaorik edan dozu? Bai, basserrian askotan edan dot.—9. Nik ez dot egundo sagardaorik edan.—10. Ur au edateko ona da? Bai, emengo ur guztiak onak dira edateko.—11. Erri batzuetan ez daukie urik edateko.—12. Itxasoan ur asko dago, baño ez da ona edateko, gazia dalako.—13. Nire osabak gurago dau sagardaoa ardaoa baño.—14. Askok diñoe, ardaoa dala edaririk onena.—15. Egarrri giñan eta iturri batera joan giñan ura edatera.—16. Andonitxu iturrira joan da, ur billa.—17. Larregi jan-edatea ez da ona.—18. Erri guztian kalerik-kale ibilli giñan ogi billa, baño ez egoan iñun ogirik.—19. Bazkaria egiteko, ogi barik geratu giñan.—20. Orduan, etxera joatea erabagi genduan.—21. Berandu eldu giñan etxera, iya lauretan.—22. Baña bazkari bikaña egin genduan.—23. Cndoren, lengusuakaz urten giñan.

Iztegia - Vocabulario

bapez	nada	goizago	más temprano	goizetik	temprano
-------	------	---------	--------------	----------	----------

OBSERVACIONES GRAMATICALES

- La partícula «ba» antepuesta al verbo auxiliar equivale al castellano «si» (condicional).

Jaungoikoak gura ba dau = si Dios quiere

JARDUKIZUN - EJERCICIO

1. Batzuk, edonun ondo bizi dira; beste batzuk, iñunbez ondo.—
2. Euskeraz ondo jakiteko, geyago ikasi bear dot.—3. Ba dakit ez dala erreza euskeraz ondo ikastea, baña batzuk ikasi dabe, ta... nik, zergaitik ez?—4. Gura badozu, ikasiko dozu.—5. Edozer egiteko, gura izatea bear da lenengo.—6. Nundik etorri zarie? Baserritik etorri gara.—7. Zuen lagunak be baserritik etorri dira? Ez, gure lagunak itxasotik etorri dira.—8. Zure aita etxera joan da? Ez, lagun batzuek mendira joan da.—9. Ama be mendira joan da? Ez, ama etxean gelditu da.—10. Aita, ez da ondiño jatsi.—11. Ama goizago jagi da.—12. Ni be goizetik jagiten naz, ikastolarajoateko.—13. Arrieta jaun-andreak ez daukie seme alabarik.—14. Gu, lau anai gara; ez dogu arrebarik.—15. Gure izeko Miren'ek ostera, iru alaba ditu, mutillik bapez.—16. Gure osaba Mikel'ek etxe bat erosi dau Sopelana'n.—17. Datorren udean beragaz joango gara.—18. Sopelana'n etxe barri asko egin dabez.—19. Gure osabaren etxea oso polita da; itxaso-ondoan dago.—20. Orain etorri zarie? Ez, zazpi ta laurenetan etorri gara.—21. Zelan sartu zarie? Ate ondoan egon gara apur baten, baña gero argia ikusi ta esan dogu: norbait ba-dago.—22. Barruan jaun bat egoan; orduan, barrura sartu gara.—23. Gura ba dozue, emen geratuko gara apur baten. Ez genduan ori egin gura.

Iztegia - Vocabulario

niri	a mí	emon	dar
st	me (en el verbo)	garbitu	limpiar
daustazu	me has (tú a mí)	zabaldu	abrir
daust	me ha (él a mí)	ordaindu	pagar
daustazue	me habéis (vos. a mí)	atarra	sacar
dauste	me han (ellos a mí)	eskutitz	carta
bear bada	acaso, quizá	ezpata	espada

OBSERVACIONES GRAMATICALES

- Cuando al expresar una acción transitiva queremos indicar el complemento indirecto, es decir, la persona o cosa a quien va destinada la acción del verbo, en castellano podemos hacerlo de varias formas:

- Yo he dado un pan a Eusebio.
- Yo le he dado un pan.
- Yo le he dado un pan a Eusebio.

En este último caso habría una redundancia que, sin embargo, es muy frecuente en el uso.

- En euskera, la sílaba o letras que equivalen a ese «le» (lo mismo que las correspondientes a «me», «te», «nos», etc.) y que expresan por tanto el complemento indirecto, se intercalan en la forma auxiliar del verbo, y se intercalan siempre, aunque en la frase figure ya expreso dicho complemento.

zuk ogi bat emon dozu = tú has dado un pan
 zuk ogi bat emon dostazu = tú me has dado un pan
 zuk niri ogi bat emon deustazu = tú me has dado un pan a mí

- Generalmente la «o» del verbo (dot, dozu, dogu, dozue) se cambia en «eu» o «au» (como en dau) surgiendo así las formas deustazu, deust, deustazue, deuste, o también daustazu, daust, daustazue, dauste, como vienen en el vocabulario.
- De las tres variantes, «dostazu, daustazu o deustazu», todas en uso, hemos preferido aquí la segunda por ser la más regular.

JARDUKIZUN - EJERCICIO

1. Pozik nago, eskutitz luze ta polita idatzi daustazulako.—2. Iñaki'k nire ezpata zarra garbitu daust.—3. Zuek niri egunero diru apur bat emongo daustazue.—4. Berandu elduten nazanean, eurek zabalduten dauste atea.—5. Zuk ez daustazu ondiño ezer

ordaindu.—6. Nire txapela errekarra jausi da, baña zuek, bear bada, atarako daustazue.—7. Ez dakit zer, baña zeozer ekarriko dauste.—8. Beste soñeko bat ipinteko esan daust amak,

BERROGEITAMARGAREN IKASKAIA

LECCION 50

Iztegia - Vocabulario

zeustan	me habías (tú a mí)	uri	ciudad
eustan	me había (él a mí)	ogerleko	duro (5 ptas.)
zeusten	me habíais (vos. a mí)	seaska	cuna
eusten	me habían (ellos a mí)	su	fuego
bialdu	enviar	oge	cama
bota	echar	maite	querido
erakutsi	mostrar, enseñar	zuzen	recto
igarri	adivinar		

OBSERVACIONES GRAMATICALES

- Al igual que se ha visto en la lección anterior con el presente, también se intercalan las mismas letras en el auxiliar de pasado para expresar el complemento indirecto.
- La transformación se hace a partir de las formas primitivas, en parte ya en desuso, «neban, zeban, eban, geban, zeben y eben» y teniendo en cuenta que la «b» es en realidad una «u» convertida en «b» al hallarse entre dos vocales, lo mismo que de gau (noche) hacemos gaba (la noche). Así por ejemplo, al intercalar la «st» en las formas antedichas resultan: zeu-st-an, eu-st-an, etc.
- No detallamos más las modificaciones eufónicas que se producen, por creer que serán fácilmente identificadas por el alumno, y que las explicaciones dadas hasta ahora bastarán para comprender la construcción de estas formas verbales que iremos estudiando en sucesivas lecciones.

JARDUKIZUN - EJERCICIO

1. Joan dan illean eskutitz luze bat bialdu zeustan.—2. Begoña'k bere alabearen seaska erakutsi eustan atzo.—3. Zuen oge zarra urira bialdu zeusten eta nik sutara bota neban.—4. Jaun batzuk ogerleko bat bota eusten oiñetara.—5. Aitak ogerleko bat emon eustan.—6. Lagun maite batek bialdu eustan ezpata polit au, Afrika'n egon zanean.—7. Arin igarri eusten ez zala egia.—8.

Euren baserritik urira joateko bide zuzen-zuzen bat erakutsi eusten.—9. Zegaitik bota zeustan liburua lurrera?—10. Zelan igarri zeustan zure etxean egon nintzala?—11. Ikastolara ekarten eusten bazkaria.—12. Ama, zuk erakutsi zeustan abesti ori, ni txiki- txikia nintzanean.

BERROGEITAMAIKAGARREN IKASKAIA

LECCION 51

Iztegia - Vocabulario

zuri	a ti	itaun	pregunta
tzu	te (en el verbo)	deadar	grito
dautzut	te he (yo a ti)	neutzun	te había (yo a ti)
dautzu	te ha (él a ti)	eutzun	te había (él a ti)
dautzugu	te hemos (nos. a ti)	geutzun	te habíamos (nos. a ti)
dautzue	te han (ellos a ti)	eutzuen	te habían (ellos a ti)
berba	palabra	berba egin	hablar
itz	palabra	itz egin	hablar
dei	llamada	dei egin	llamar

OBSERVACIONES GRAMATICALES

- *Para expresar el complemento indirecto cuando éste es segunda persona de singular (a ti, te) se intercala en las formas auxiliares del verbo la sílaba «tzu», teniendo siempre en cuenta las advertencias hechas en las lecciones anteriores. Así:*

Yo he hecho una pregunta = **nik itaun bat egin dot**

Yo te he hecho una pregunta = **nik itaun bat egin dautzut**

- *Como ya se ha dicho con respecto a todas las formas verbales de transitivo, cuando el objeto o complemento directo es plural, hay que añadir una «z» al final de las formas de presente, y en las de pretérito hay que intercalar la sílaba «za» delante de la «n» final. Así pues:*

emon dautzut = te he dado (una cosa)

emon dautzudaz = te he dado (varias cosas)

emon neutzun = te di (una cosa)

emon neutzuzan = te di (varias cosas)

JARDUKIZUN - EJERCICIO

1. Etxera eroango dautzut eskutitza.—2. Oge eder bat erosi dautzu zure izekoak.—3. Biar erakutsiko dautzugu gure umetxua- ren seaska barria.—4. Zetarako dei egin dautzue gizon orrek?—

5. Nik itaun bat egin neutzun eta zuk ondiño ez daustazu erantzun.
 6. Zenbat diru emon eutzun aitak liburua erosteko?—7. Guk zor guztia ordaindu geutzun.—8. Zure lagunak dei egin eutzuen, baña zuk ez zenduan entzun.—9. Nik lau eskutitz bialdu neutzuzan eta zuk niri bapez.—10. Etorri gero nire etxera: itz batzuk esan gura dautzudaz.—11. Aita, urian egon gara eta liburu au ekarri dautzugu andik.—12. Ba-dakizu, adiskide maite: guk beti egi-egia esango dautzugu zuri.

BERROGEITAMABIGARREN IKASKAIA

LECCION 52

Iztegia - Vocabulario

berari	a él	orri	hoja
tso	le (en el verbo)	ugazaba	amo, patrón
dautsot	le he (yo a él)	neutson	le había (yo a él)
dautsozu	le has (tú a él)	zeutson	le habías (tú a él)
dautso	le ha (él a él)	eutson	le había (él a él)
dautsogu	le hemos (nos. a él)	geutson	le habíamos (nos. a él)
dautsozue	le habéis (vos. a él)	zeutsoen	le habíais (vos. a él)
dautsoe	le han (ellos a él)	eutsoen	le habían (ellos a él)
luzetu	alargar	ostu	robar
...i	a... (destino)	...tu	sufijo verbal (infinitivo)

OBSERVACIONES GRAMATICALES

- *Intercalando en las formas auxiliares del verbo, tanto de presente como de pretérito, la sílaba «tso» se expresa el complemento indirecto de tercera persona de singular (a él, le):*
 nik orri bat emon dot = yo he dado una hoja
 nik orri bat emon dautsot = yo le he dado una hoja
 guk egia esan geutson = nosotros le dijimos la verdad
- *Cuando en la frase va expreso el complemento indirecto y éste es un nombre, se añade al mismo el sufijo «i» que, según los casos, puede revestir las siguientes formas:*
 seme (hijo) semeari (al hijo); txori (pájaro) txoriari (al pájaro)
 lagun (amigo) lagunei (a los amigos); txori (pájaro) txoriei (a los pájaros)
 Miren'i (a María); Iñaki'ri (a Ignacio)
- *Añadiendo el sufijo «tu» a algunas palabras, principalmente adjetivos calificativos, se obtienen los correspondientes verbos. Así:*
 luze (largo) luzetu (alargar); bero (calor) berotu (calentar)
 garbi (limpio) garbitu (limpiar); bazter (rincón) baztertu (arrinconar)

JARDUKIZUN - EJERCICIO

1. Nik ez dautsot esan Durango'ra joateko.—2. Zure amari zer ekarri dautsozu?—3. Begoña'k seaska polit bat erosi dautso bere semetxuari.—4. Gure aita goizetik mendira joan da eta bazkaria guk eroan dautsogu.—5. Zenbat ordainduten dautsozue ugazabeari baserriagaitik?—6. Egunero eskutitz bat bialduko dautsoe. 7. Ogi zati bat bota neutson txoriari.—8. Idatzi zeutson zure izekoari?—9. Nok zabaldu eutson atea aitari?—10. Amari esan geutsoanean, poztu egin zan.—11. Zetarako ermon zeutsoen umeari orri zuri bat?—12. Bidean diru guztia ostu eutsoen ugazabari.

BERROGEITAMAIRUGARREN IKASKAIA

LECCION 53

Iztegia - Vocabulario

guri	a nosotros	...xe	(intensivo)
sku	nos (en el verbo)	...txe	(intensivo)
dauskuzu	nos has (tú a nosotros)	zeuskun	nos habías (tú a nos.)
dausku	nos ha (él a nosotros)	euskun	nos había (él a nos.)
dauskuzue	nos habéis (vos. a nos.)	zeuskuen	nos habíais (vos. a nos.)
dauskue	nos han (ellos a nos.)	euskuen	nos habían (ellos a no.)
eskatu	pedir	sari	premio
gertau	preparar	benetan	verdaderamente, en serio
gorde	guardar	danok	todos

OBSERVACIONES GRAMATICALES

- *Intercalando en las formas auxiliares la sílaba «sku» se expresa el complemento indirecto de primera persona de plural (a nosotros, nos)*
afari eder bat gertau dabe = Han preparado una hermosa cena
afari eder bat gertau dauskue = Nos han preparado una buena (hermosa) cena
- *Cuando se quiere recalcar un término en la oración, se emplea un tono intensivo en la pronunciación, o bien se le acompaña de otra palabra que la refuerce. Así en castellano, en la frase «yo lo he visto» si se quiere recalcar que soy yo y no otro el que ha visto se dirá «Yo mismo lo he visto».*
- *En euskera se expresa la forma intensiva de varias maneras, según los casos:*
 - a) *Con los pronombres personales, introduciendo en ellos ligeras modificaciones, como «neu» en lugar de «ni», «zeu», «geu», «zuok», etc.*
neuk ikusi dot = Yo mismo lo he visto

b) En otros casos se añade el prefijo «ber» o los sufijos «xe» o «txe»: ementxe egoteko esan dausku = Nos ha dicho que estemos aquí mismo

JARDUKIZUN - EJERCICIO

1. Aita, benetan erosiko dauskuzu liburu ori?—2. Bere etxean ez ezer esateko eskatu dausku Miren'ek.—3. Zetarako bialdu dauskuzue ainbeste sagar?—4. An afari eder bat gertau dauskue, ta ara goaz danok.—5. Atzo eskutitz polit bat irakurri zeuskun: or daukazu ondiño?—6. Txapela ate-ostean gorde euskun Ander'en seme txikiak.—7. Bai, zuek jai ederra gertau zeuskuen, baña gu ezin joan.—8. Lan guztia arin eta ondo egin ebelako sari bat eskatu euskuen.—9. Ama, noiz erakutsiko dauskuzuz abesti orrek?—10. Lengusuak baserritik etorri ziranean, gaztai aundi bi ekarri euskuezan.—11. Zuk egin dozu ori, Iñaki? Bai jauna neuk egin dot.—12. Ementxe egoteko esan euskun.—13. Baserri onetantxe jaio zan nire aitita.—14. Orrexegaitik esan dautzut.—15. Zeuk ekarriko dozu?

BERROGEITAMALAU GARREN IKASKAIA

LECCION 54

Iztegia - Vocabulario

zuei	a vosotros	...garri	digno de; causa de...
tzue	os (en el verbo)	...arren	aunque
dautzuet	os he (yo a vosotros)	neutzuen	os había (yo a vosotros)
dautzue	os ha (él a vosotros)	eutzuen	os había (él a vosotros)
dautzuegu	os hemos (nos. a vos.)	geutzuen	os habíamos (nos. a vos.)
dautzuee	os han (ellos a vos.)	eutzueen	os habían (ellos a vos.)
irabazi	ganar	izen	nombre
itandu	preguntar	eguerdi	mediodía
josi	coser	lapur	ladrón

OBSERVACIONES GRAMATICALES

- Intercalando «tzue» en las formas auxiliares del verbo, se expresa el complemento indirecto de segunda persona de plural (a vosotros, os):
mai-ganean ipiñi dau = Lo ha puesto encima de la mesa
mai-ganean ipiñi dautzue = Os lo ha puesto encima de la mesa
- El sufijo «garri» es de muchísimo uso. Unas veces significa «digno de» como en ikusgarri (digno de verse), maitagarri (digno de amarse, amable), y otras veces, las más, quiere decir «que causa...» como en bil-

durgarri (que causa miedo, temible), mingarri (que causa dolor, doloroso), etc.

- El sufijo «arren» equivale a la conjunción «aunque». Esta se emplea con mucha frecuencia, en castellano, acompañando a un verbo en modo subjuntivo: aunque vayas, aunque llegases... En euskera, en cambio, «arren» se añade casi siempre al infinitivo:

egia esan-arren = aunque digas la verdad

berandu etorri-arren = aunque vengáis tarde

txarto itzegin-arren = aunque lo hables mal

- Esta forma de usar la conjunción tiene el inconveniente de que no se especifica bien la persona a quien nos referimos y hay que tener en cuenta el contexto para traducirla debidamente. Así, berandu etorri-arren lo mismo se podría traducir, «aunque vengas tarde, aunque vengáis tarde, aunque venga tarde». Depende de aquello a que nos referimos.

JARDUKIZUN - EJERCICIO

1. Antxe daukazue liburua: mai-ganean ipiñi dautzuet.—2. Zer itandu dautzue mutil orrek?—3. Eleiza barri ori ikusgarria da; gura ba'dozue, biar erakutsiko dautzuegu.—4. Ara joatean, izena itanduko dautzue.—5. Zuentzat mingarria izan-arren, egi-egia esan neutzen.—6. Zer esan eutzuen amak, ain berandu joan ziñielako?—7. Eguerdian gure etxera etorteko esan geutzuen, baña zuek etziñien agertu.—8. Lapur gaizto arek kortako beirik ederrena ostu eutzueen.—9. Nire izena itandu dautzue jaun orrek?, zetarako jakin gura eban?—10. Nun josi eutzuen soñeko polit ori?—11. Illabetean bost eskutitz bialdu neutzuezan.—12. An jazo zana bildugarria izan zan.—13. Ondo ez egin-arren, euske-raz egin bear daustazu beti.—14. Diru asko irabazi-arren, ondiño geiago gura dabe.—15. Eguerdian zer emon eutzuen jateko?

BERROGEITAMABOSTGARREN IKASKAIA

LECCION 55

Iztegia - Vocabulario

eurei	a ellos	...gana	a... (seres vivos)
tse	a ellos, les (en el v.)	...ka	gerundio
dautset	les he (yo a ellos)	neutsen	les había (yo a ellos)
dautsezu	les has (tú a ellos)	zeutsen	les habías (tú a ellos)
dautse	les ha (él a ellos)	eutsen	les había (él a ellos)
dautsegu	les hemos (nos. a ellos)	geutsen	les habíamos (nos. a ellos)
dautsezue	les habéis (vos. a ellos)	zeutsien	les habíais (vos. a ellos)
dautsie	les han (ellos a ellos)	eutsien	les habían (ellos a ellos)
edegi	abrir	gora	a arriba
jaso	levantar	beera	a abajo
orrei	a esos	mesedez	por favor

OBSERVACIONES GRAMATICALES

- Para expresar el complemento indirecto de tercera persona de plural, se intercala la sílaba «tse» (a ellos, les).
- El sufijo «gana» expresa dirección a, lo mismo que el sufijo «ra». Pero mientras este último se usa con nombres de lugar: *etxera, kalera, urira, mendira...* «gana» en cambio se usa con nombres de seres animados: *aitagana* (a (donde) el padre), *lapurragana* (a donde el ladrón), *txakurragana* (a donde el perro), *Gorostidi jaunagana* (a donde el señor Gorostidi)...
- Cuando el nombre es determinado plural el sufijo «gana» se convierte en «akana»: *lagunakana* (a donde los amigos), *lengusuakana* (a donde los primos)...
- El sufijo «ka» añadido al infinitivo de un verbo da a éste la forma de gerundio: *deadarka* (gritando), *deika* (llamando), *jausika* (cayendo), etc.

JARDUKIZUN - EJERCICIO

1. Astiro itz-egingo dautset, errezago ulertuteko.—2. Zer itandu dautsezu gizon orrei?—3. Ikastolara goizago etorteko esan dautse irakasleak ikasleai.—4. Ori esan dautsegunean, arin jagi dira ogetik.—5. Zegaitik ez dautsezue atea edegi gura?—6. Euren ogi guztia olloei bota dautsie ume orrek.—7. Orduan, deadarka, baietz esan neutsen.—8. Zugana joateko agindu zeutsenean, zer egin eben?—9. Zugatz baten ostein gorde eutsen pelotea nire aitak.—10. Guk jaso geutsen giltza lurretik.—11. Pozik etorri ziran gure umeak, ogerleko bat emon zeutsielako.—12. Mesedez eskatu-arren, ez eutsien emon.—13. Bide orretatik gora joan dira: neuk ikusi dodaz.—14. Mendi-tontorretatik beera datozen urak, itxasoraño joaten dira.—15. Amaya gora joan da, bere izeko Begoña'gana.—16. Sari eder bat emon neutsen, etxea ondo garbitu ebelako.

BERROGEITAMASEIGARREN IKASKAIA

LECCION 56

Iztegia - Vocabulario

zaitut	yo te he	jo	pegar	alan (olan)	así
zaituet	yo os he	salbau	salvar	oba, obeto	mejor
zaitu	él te ha	zaindu	proteger	bestela	de otra forma
zaitue	él os ha	ezagutu	conocer	bitartean	mientras
nozu	tú me has	bildurtu	intimidar	ganera	además
gaituzu	tú nos has	aurkitu	encontrar	ziur	seguro
nau	él me ha	antz	semejanza	milla	mil
gaitu	él nos ha	gaixo	cuitado	toki	lugar

OBSERVACIONES GRAMATICALES

- Cuando el complemento directo, es decir, «lo que se ve», «lo que se ama», «lo que se conoce», etc., es la misma persona o personas a quien se habla, el verbo auxiliar toma en euskera las formas especiales que pueden verse en el vocabulario. Así:

nik ikusi zaitut = yo te he visto
 zuk ezagutu nozu = tú me has conocido
